



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK

38. buletina (2006ko abenduaren 22koa)

- **Laburpena:**

1. **Kontrata ikuskatzaile lanpostu bat aldi baterako betetzea**

- **Zehaztapenak:**

- Hirigintza Sailean KONTRATA IKUSKATZAILE lanpostu bat aldi baterako betetzeko kontratazioa egin beharra dago.

- **Bete beharreko baldintzak:**

- Goi-mailako Batxilergoa edo LH II
- B gidabaimena.

- **Balioetsiko direnak:**

- Ingurumen osasunaren, saneamendu sareen baita hondakinen birziklatze, tratamendu eta kontrolaren inguruko prestakuntza eta eskarmentua
- Lan ekipoak ikuskatzen eta kontrolatzen esperientzia izatea
- Autocad erabiltzea
- Gis alorreko oinarrizko ezagutza

- **Kontratu mota:** Programa-kontratua. Iraupena: 2 urte (gutxienez). Bulegoetako ordutegia. Askotan jaiegun eta arratsaldeak. Gidatu egin beharko da. Hileko soldata gordina: 2.127,12 euro

- **Lanpostuko zereginak:**

- Garbiketa, saneamendu sarea onik mantentzeko lanak, hondakinen, elementu kutsatzaileen eta birziklagarrien bilketa eta garraioa, eta udalerriko herrietako edukiontziak onik mantentzeko lanak gauzatzen dituen kontrataren jarraipena eta kontrola.

- Lan egutegien estatistikak egitea
- Hondakinen arloko ikuskaritza, aholkularitza eta herritarrentzako informazioa
- Saneamendu sareen ibilbide guztia eta egoera aztertu eta berrikustea, Kontratarekin lankidetzan
- Jarraipen-txostenak egitea
- Saneamendu-sarearen ibilbidea planoan adieraztea

- **Izangaien onarpena** LANGAIren laguntzarekin egingo da ezarritako irizpideei jarraiki. Hortaz, interesdunek erakunde horren jendaurreko bulegoetakoren batera jo beharko dute, eta **162006016303** zenbakiko hautatze prozesuan sartzeko eskatu. Epea: **2007ko urtarrilaren 8a** arte (hori barne).

- Informazio gehiago edo interneten bidez izena eman nahi izanez gero, www.lanbide.net orrira jo, bilatzailearen erreferentzia sartuta zuzenean eramango zaitu eskaintzara, eta hor ezartzen den prozedurari jarraitu beharko diozu.

- **Hautaketa prozesuak** bi zati izango ditu.

Lehenengo, betebeharreko baldintzak dituzten izangaien artean aurre-hautaketa egingo da; "baloratuko diren baldintzak" atalean jasotzen diren merezimenduak kontuan hartuta, 10 hoberenak aukeratuko dira.

Prozesuaren bigarren zatian aurre-hautaketan aukeratuek lanpostuaren zereginen inguruko zenbait proba teoriko-praktiko egingo dute. Proba horiek urtarrilaren 22tik aurrera egitea aurreikusita dago.

- Proba teoriko-praktikoa egiteko onartu eta bazter utzitako pertsonen zerrendari buruzko informazioa 2007ko urtarrilaren 12tik aurrera emango da, 010 telefonoan (945 161100 Gasteiztik kanpotik deituz gero); orobat argitaratuko da zerrenda udaletxeko iragarki taulan (Espainia plaza) nahiz udalaren web orrian. <http://www.vitoria-gasteiz.org>

- **Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 11 00)**
- **Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>**
- **Aurretik argitaratutako beste agiri batzuk:**

Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia.

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org
seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org

**HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**